


"Alkartasuna"

"Alkartasuna indarra da". Eta gaurko mundua ain bigun, ain txakil eta ain makal ikusita, zelan esan alkartasuna dagoa? Egia esateko... nun aurkitzen dogu gaur benetako alkartasuna? Eta, dana batera esateko, nun benetako indarra?

Gaurko indarra da edo ukabillena edo bomba atomika zantar bildurgarriena; baña benetako, egizko indarrak, biotz-animen batasunetik zortzen eta bizitzen dan indarrak ez da ukusten, edo beintzat ondo urri.

Oker gabiltz. Armaen indarra ipini dogu benetakoaren tokian. Aldrebeskeri aundia. Eta aldrebeskeri onek arin edo nekez emongo dau bere benetako frutua, mingotza, eriotzaren kokoa daroena. Zergaitik egiten da bestela ainbat berba gerrea dala eta ez dala? Bildur garialako. Ba bildur au, eta datorren gerrea, budator beintzat, aldrebeskeri onexen frutua izango da.

Guzurra dirudi: gizonak, gizona danetik, ez dau oraindiño ulertu bakean eta alkar-maitasunean bizitzeko jaioa eta egina dala.



ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

VIII URTEA - N.º 83

IRAILLA (8) 1961

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

Zenbat gerra. Eta noiz eskarmentatu? Buru-gogorra izan bear nai ta nai ez.

Eta au kristiñau artean, gure errietan eta gure kalietan gertatzen dala ikustea samingarriagoa da oraindiño. Ez bear bada ain bildurgarri,, baña gertatzen da: ikusi eziñak, amorruak, lapurretak, eriotzak, marmar illun amaibakoak eta abar...

Ba..., batasuna bear-bearrekoa dogu kristiñauok. Batasuna familiar, errian eta naziñoan. Indarrak batu bear doguz, bestela galduak gara. Orrextantxe diardue komunistuk eta ikustea baño ez dago euren aurretupenak.

Gerrea izaten badu be, ez da izango URSS eta USA artean: komunismo eta kristiñautasunaren artean baño. Aian diñok jakitunak: benetako ixokia, benetako gerria indar onexen artean izango dala.

Ori dala ta zarrilan egin dau berba Aita Santuak, eta baña Obispo jaun askok bere. Batasuna eskalzen deuskue, indarrak batuteko, arkartuteko sendoak eta gogorrak izan gaitzan.

Gure familiak, gure erriak, gure asoziazio eta kooperadiak, gure probintzi eta nazioak ondo batuta, benetako alkar-maitasunak eta ardyreak zortzen dabon lokarritz lotuta boleagoz orduan bai izango giñakela benetan sendoak. Eta ikusteko ordua da gero.

Danok anaiak bagura, danok alkartu bear dogu: abadi, fabrikante, obreru eta baserritarak. Jesukristok emondako Agindu Santua leial eta fin beteaz biziltza onetan benetako bakea eta zoriona lortu daigun. Kristogaz edo Marzegaz.

Ez deuskue emon erakutsi makala Kennedyk eta Nixonek onetzaz. Zelan alkartu eta batu diran etsai biak euren naziñoaren aunditasunerako. Zelan lagundu batak besteari... Ori da benetako izatea, patxadazkoa izatea.

Beste orrenbeste egingo bagendu kristiñau guztiak...

Antonio Zubizarreta



EMAKUMEAREN TZAKO



ESKONTZAK GIZONAK

BILDURTUTEN DAUZU?

EJENPLOAK

“Ogeta lau urte daukadaz —dirausku neska batek—; emaztegai edo nobia naz joan diran lau urte onetan. Nire senargaiak asko maite nau; bere eginkizun eta berba guztiak dirauste; ez dot orren bildurrik ez dudarik. Diro kontuan? Biok gara gorabera aundibakoak. Ez gara aberatsak, baña ezta txiroak be. Biok gara biargiñak; famili bat atonduteko beste irebasten dogulata nago. Orduan, zer? Ezkontza eguna atauten dodan bakoitzean nire senargaia oskilduta legez geldituten da; autu ori ateraten dotanean, berak beste autu edo konbersazio batera jotzen dau; kontixu ez yako atseingarri ezkontza egun orretaz berba egitea... zergaitik ete da? Bildurra?

* * *

“Eskolan ebilli gintzanetik esagututen gara —diño beste neskato batek—; beti konpondu izan gara ondo alkarrekin. Beti alkar maite izan gara, ni bere emaztea izateko jaio nintzalata nago; ziur-ziur nago. Problematxoren bat aurreratuten bayako, beti dator, ta gañera pozik, neuregana. Asko maite nau, ta... asko maite dot. Baiña... ezkontzaren ganean ez deust ezer esan

egundo. Zergaitik ete da? Damutu egin eta da ni emaztetzat artuteagaz?

* * *

“Azkenean ipini dau nire senargaiak ezkontzarako eguna —diño beste batek— Kos-tau yako! Baiña... gizajoa!, egun ori ipi-



niaz damututa dagola esango neunke. Al-
biste ori emon eustanetik onantz txarto
dabil; batean gomitolarrria; bestean, lorik
egin bako gauak; argaldu egin... Berbetan
be ez da lengoa. Zer gertatu da ba? Ezkon-
tza egunaren bildurra?..."

Zer esan geinke gertakizun oneek ikusi on-
doren? Gauzatxo bat: Gaurko gizona ez-
kontzaren aurrean bildurtu egiten dala.

BIOTZA... TA TELEBISIÑOIA

Gizon asko, batez be biargiñak eta abe-
rats ez diranak, familia eratu edo formau
bear daben orduan bildurtu egiten dira.
Geinetan diru kontua dala ta ezjala. Etxe
bat edo bizi-toki bat erosi bear dala? Dirua
bear da; lau edo bost seme asi ta ezi bear
dirala? Dirua bear da; ta beti dirua, ta beti
dirua! Ezkontza aberatsentzat da. Ta orain-
diño geiago: gaurko emaztegiak etxe ba-
rria ez ezik, telebisiñoia, frigorifikoa, eko-
nomika eletrikoa, t.a. eskatuten dautsez se-
nargaiari. Norena orduan errua? Errua
emaztegiarena da. Gaurko emaztegiak es-
kabide askotxu dauke. Ezkontzaren eska-
bide oneek ikusi ondoren, nor ezkondu? Ez
dira bildurtuko ba?

ESTADISTIKAK

Estadistika batek diño: "Gaurko neskek
azalekoak, buru gitxikoak, eroak dira. Gau-
zako sentimenturik ez dabe. Euren burua
apaindu ta zaindutea naiko dala deritxoe.
Senarrarenganako amodioa ez dakie zer
dan. Ta gañera, nun idori neska zintzo,
garbia, apala? Nork aurkitu dozena bat
amodiorik euki ez daben neskatilletan? Zi-
nera, eskursiñoan, paseoan ibilteko berebi-
zikoak dira; baña ortik gora...!".

Estadistika onek ori esan arren nik ez
dot uste gaurko neskek ainbesterañokoak
diranik. Gaurko neska taldean asko dira
lengo neskek baño txarragoak ez diranak
eta obeagoak diranak. Baiña, egia esan bear
dot, asko dira burubakoak eta ezkontzari
kalte aundia egiten deutesenak.

AINGERUA? DEABRUA?...

BIAK BATERA?

Gizon asko geratuten dira ezkondu ba-
rik. Askotan, eurena, gizonena da errua.
Beste munduko neskatillea gura badabe...,
ta beste mundutik ez da oraindiño neska-
tillarik jetxi. Gizon askok, larrosaren sua
ta kabeliñaren apaltasuna dabezan neska-
tillea gura dabe emaztetzat. Alde batetik,
neska polita, dotorea, jakintsua, adimen-
tsua, alaitsua gura dabe; bestetik neska
ona, apala, emonkorra, biargiña... Baiña...
"neskatxu" ori nun aurkitu?

Gizon askok esaten dau: "Nire izadia
ez da ezkontzeko modukoa; nik bakarrik
bizi bear dot. Ezkontzako "berotasun-
txoak" ezertxorik be ez deust esaten.
Umeak ez yataz gustatzen. Ezkontzak ill
egingo leuke nire maitasun apurra...". Ta
ez pentsatu Teddy-boystar berbetan nagoa-
nik, ez; gure arteko gizonatzaz baiño.

Badira baita ezkontzat bere ondoren da-
karzan arduretasunak atzeratuten debeze-
nak be. Ez dira sentitzen diñ. "Ondo bizi
naz —dirauskue—; zertarako gura dotaz
buruaustek?".

Azkenez, bada beste taldetxu bat, (ta da-
nak sartzen dira talde onetan, aberats, txi-
ro, oskil...). Bein ezkontzan sartu ezker-
o —esaten dabe— gizonantzat dana amaitu
da: gaztetasuna, adiskedetasunak, erron-
dak... Emaztea ostera, ezkontza egunean
jaioten da. Ezkontzan osotuten da emaku-
mea; ezkontzan agertzen da bere amatasu-
na; ezkontzan gogortuten da bere bizia.

Zer esan geinke gauz oneen buruz? Gi-
txi. Problema asko dira ezkontza mundu
onetan. Batzuek, esate baterako, diro kon-
tua, amodio kontua, t. a., inportantzi aun-
dikoak dira; beste batzuek: bildurtasuna,
oskiltasuna..., aitzakiak dira. Zer egin bear
dogu guk ezkontzeko dagozan gazte oneen
alde? Lelengo entzun euren problematxoak;
gero, lagundu problema orreetatik urte-
ten ta azkenez, konprendidu beti! Biar au
egiten badogu, famili on asko sortuko dira
ta gizon asko pozik biziko dira. Orra or
gure biarra.

Idoyagatar Xabier



Andre Biargiñaren aunditasuna

LEGEA EDEGITA EMAKUMEEN
BIERRERANTZA GURE ARTEAN

Bear izanak eraginda, etxetik kanpora bierrin dabilten andreen bizi-bide makala laster mejoreuta ikusiko dogu. Datorren urtetik erreztasun askoz be geiago emongo yakee oiñarte galasota euki dabezan em-presa batzutan sartzeko. Jorborobil eta al-tuagoak lortu daikeezan, araso sendoagoa-na joteko ezkubidea izango dabe aurreran-tzean andreak.

“Andrea edozelako kontratu bat egiteko eskubidearen jabe da edonun”, diño legeak. Onek esan gura dau, oiñarte lez barik, au-rrerantzean andrea izateak ez daukola ze ikusirik kontratu bat egiteko orduan; ema-kumea gizonetzkoagaz joteko erreyan jarri-ta dagola. Baiña, alan da guztiz be, emaz-teak bere gizonaren baihenagaz egin bear dau dana beti.

ARASO ZASTARRAK

Eta andrearen erakoak diran bierrak be aurrerakoan asko geiagotuko dira. Amen-dik aurrera andrearen ganoratasuna era-kusteko unea zabalago izango da bierrean. Araso gitxi dira bere peligru edo astunta-sunagaitik emakumeak aurrera eroan ezin dabezenak. Ia andrea danerako aukeratuta dago. Andamioetako lanak eta mundu one-tara bidean dagozan semeen osasuna gala-soten dabenak izan ezik, legez beste danak egin leikez andreak. Gabaz be galasota dau-keek bierra artzea.

Begitu ba, andreak bier leku asko irabazi dauz eta ez dago txarto. Gaur-arte andrea-ren balioa ez da izan bere neurrian ain-tzatua, ez da gitxiagorik be; baiña gaur-tik bier askotan gizonetzkoagaz kompetidu-teko erreyan dago emakumea. Baiña alan da guztiz be ez dogu astuten iñoiz andrea gizona barik emakumea izango dala beti, ta orregaitik gitxiagotxuago.

BIERRA TA EZKONTZEA

Baiña Eleiza Ama Santak andrea bere etxe beroan sartuta ikustea nai dau ezkon-tzen danean. Baiña au ezin leike bete famili askoren barruan eta emaztea aintxe dago bere gizoneri lagunduteko desiguaz; prest dago bai familiko kargak arintzarren. Orregaitik ba, errez ixten dau Eleizak eta ondo ikusten dau andre biergiñak gizonari presteuten deutson laguntsa maitasuntsua. Ori dala-ta ainbet ariñen ikusi gura geun-ke konponduta andre guztien bier-izana.

Eta orregaitik ez ikeratu emendik aurre-ra emakumeak eta gizonak sueldo bardina artzen badabe bierATEGAITIK. Au txaloga-rria izango litzake ta famili askoren salba-zioa! Ba ez da ikusgarria gaur jasoten da-na emakumeak pagoa jasoten doazanean-ta. Zegaitik diferentzi ori, biak bardin egiten badabe?

EGIZTATU

Oiñartekoa eginai ikusgarri bat da; pro-yecto aundi bat. Paperean idatzita dagoan gauza eder bat bakarrik. Eta sayatu gaite-zan danok ainbat ariñen lambide eder one-ri arnasa ta bizia emoten eta gure arteko emakume biargiñak topau dagin euren so-luziñorik onena ta egokiena. Ez daigun itxi iñoiz atzean emakumearen bier zaletasuna. Baiña alan da guztiz be, gure arteko andra biargiñak ez daiela astu iñoiz bere aundi-tasuna ta bere emakumetasuna! Biergiña da, baiña beti gizonetzkoa baiño debillago ta amaago!

Anai Yon Zabalgo

Aita Imanol-ek Paris-etik

Kristoren Errevoluziñoa

Irailaren (setembrearen) lenengo asteen, milla ta zazpireun bat eleizgizon —fraille ta abade— batu giñean Paris-en. Antxe egon giñean bost egunean, datorren urtean zelan lan egin bear dogun pentsatzen, estudiantzen, organizatzen. Danok batzan jardun genduan, frantsesak, holandesak, belgak, portugesak eta espainolak. Eginbearra aundia zan: bide barriak, metodu barriak billatu, Kristoren dotriñea fabriketako ta itxasoko langille gazteen artera eroateko.

Gaur egunean, errevoluziño ikaragarri bat ikusten gagoz obreruen eta itxastarren bizimoduan: errevoluziño tekniko, ekonomiko ta soziala. Zoritxarrez, errevoluziño orrek ez deutso beti jaramonik egiten Kristoren irakaspinari. Ta orregaitik, kristiñau guztiok eta batez-bere guk eleizgizonok alegiña egin bear dogu, errevoluziño ori kristiñaututeko. Orrexetarako batu gintzazan Paris-en.

Paris, errevoluziñoaren sorterrria

Kristoren errevoluziñoa eratuteko, non Paris-en baiño obeto? Paris-en, errevoluziñozko gauza asko etorten jakun gogora, eta indar espezial bat asmetan genduan barruan, gaurko zoritxarren erremedioa billatuteko.

Lo egiteko, Vaugirard kaleko Karmeliten Komentura eroan ninduen. Aintxiñako monjen orde, orain abadekiak bizi dira bertan. Urrengo goizean, mezea emoten, eleizako kriptara jatsi nintzanean, impresiño guztiz sakona artu neban. Kripta erdi erdian kurtze aundi bat egoan. Urretu nintzakon berari, eta letrerutxu baten irakurri neban bere historia. Bariku guren baten, kurtze orretan dingilizka egon zan iru orduan Lacordaire fraille famadua; eta kriptara orretara etorten zan sarritan, otoitz egiten eta odolozko azofaldiak artzen, pulpitura prediketari igon orduko.

Kriptako ormetan sepultura asko ikusi nituan; baiña batek eraso eustan geien. Antxe egoan enterratuta Vaugirard kaleko Karmelita Komentuaren monja fundatzailea. Ikusi doze *Didlogo de las Carmelitas*

pelikulea? Ez zarie gomutetan monja aregaz, urkamendira joan barik lotu zanagaz? Ez zarie akordetan, zelan esan eutson kappelauak bizirik geratuteko, Karmeliten Ordenea berak sostenidu bear ebala-ta? Ba, monja axe zan urrean kriptan enterratuta egoana. Beiñik bein pentsamentu ori etorri jatan niri burura, sepultura arriko historia irakurri nebanean.

Baiña beste gauza batek impresionatu ninduan oraiñdiño geiago kripta aretan. Antxe ikusi nituan, goizeko ixiltasun eta barkatadean, frantsez matziñadako martirien buru azurrak. Komentu atan egon zirean kartzelatuta ainbeste fraille ta abade —euren artean iru frantziskano—, eta danak galdu eben euren bizia Paris-eko errevoluzionarioen eskuetan, irailaren bian, milla zazpireun ta larogetamabigarren urtean. Ain zuzen-bere egun orretan bertan eldu nintzan ni Paris-era, eta nire lako fraille frantziskano bat izan zan errevoluzionarioak lenengo il ebena, komentuko hortuan brevariario errezetan egoala. Negarrez veneratu nituan euren errelikiak, eta devosiñoz beterik errezatu nebazan euren hondran neure brevariarioko otoitzak.

Martirien jarraitzaileak

Karmeliten Komentuko martirien antze-koak izan bear geunke Paris-en batu garean eleizgizonak. Orixe eskatuten deusku Aita Santuak, Kristoren errevoluziñoa fabriketara ta barkuetara eroan gura badogu. Baiña errevoluziño ori ez dogu geuk personalki egin bear, geuk formetan doguzan obreruak eta itxasgizonak eurak baiño. Eurak artu bear dabe arazo orren erresponsabilidade direktua, eta lantegietan naiz untzietan eurak izan bear dabe Kristoren testiguak (martiriak). Olan izan ezik, alperrekoak izango dira eleizgizonen alegiñak, eta langilleak ez dira iñoiz Kristoren esanera biurtuko.

Zer egin, obreru ta itxastarren artean kristiñau gazte ondo preparatuak formetako? Zer egin dogu oraiñarte? Zer egin geinke aurrerantzean? Onexek izan zirean, Paris-eko kongresuan erabili genduzan problemak.

Españi aldeko Euskalerritik iru sazerdote egon giñean bertan: Don Francisco Otamendi, Bilbaokoa, Don Manuel Balenciaga, Donostikoa, eta neu. Irurok, Itxas Apostoladuko kapellauak, eta Kristiñau Itxas Gaztediaren zuzendariak.

Gauza asko ikusi ta ikasi genduzan Paris-eko batzarrean. Euretariko bat bakarrik esango deusuet bein. Jaungoikoari eskerak, oraindiño Euskalerriko itxasgizonak —mariñoak eta arraintzaleak— beste nazi-

ñoetakoak baiño kristiñau obeak dira. Baiña gaurtik aurrera, motivu askogaitik, gero ta gatxago egingo jake ventajatxu ori gordetea. Arazo onetan ez da naikoa eleizgizonen alegiña. Itxasgizonak eurak artu bear dabe euren fedearen erantzumbearra; eurak lan egin bear dabe barku barruan lagun urkoaren siñismena gorde ta geituteko. Eta beste guztiok lagundu egin bear deussegu eureri zeregin onetan, bakotzak a daian moduan.

AZERIAREN GOGOETAK

Valentín Enbeita

*Neure bizitza zelangoa dan
Gura neuke nik azaldu
Naiz ta gizonak egin ez arren
Nire esanak siñistu
Mendietako aitz zuloetan
Artzen dot neure ostatu
An egiten dot esamiñia
Gilborra zelan asetu.*


*Ardi ta bildots bardin arkume
Ollo ollanda ollarrak
Orrezek dira nire gogoko
Janari gozo bakarrak
Eskuratzeko egiten dodaz
Buru austiak gogorrek
Neure atzian dabizelako
Gizonak eta txakurrak.*

*Gizonak nai dau bere eskuti
Gauzak erabilitia
Bere gilborra asetu eta
Azerientzat gosia
Orrez gaiñera oindiño geiao
Neure bizia kentzia
Kostako jako nai dauen legoaz
Ni tranpan arrapetia.*

*Ardi ta bildots ta egaztiak
Baldin badodaz garbitzen
Gizonak askoz geiago dituz
Neurriz kanpora ondatzen
Alan da bere euren burua
Santutzat dabe agertzen
Guriak egin dau lege obarik
Munduan ezpada sortzen.*

*Odol zalia deitzen deustie
Gizon orrek azeria
Eurak aiztoa gogotsu sartu
Bildots eta egaztiak
Jataldi eta banket ederrak
Egin astegun eta jai
Txarto egiñen errua gero
Azeriari emon nai.*





Mundua olandabil

Bakea bear dogu. Gorrotoz naiko asper-tuta gagoz-eta. Periodikoa irakurtea baiño eztago: naziño andien arrokeriak, erri tri-kien askatasun-zirkiañak, gudak, inbasioak... Zoratu egin garala esan leike. Alde bate-tik, "sartaldekoak" edo amerikanoak, Fran-tzia, Ingalterra, Alemania ta beste naziño batzukaz ondo alkarturik; bestetik, "sor-taldekoak" edo rusoak, aimbeste ta aimbeste; eta irugarrenez, "neutralistak" edo er-dikoak: India, Yugoslavia, RAU Egipto ta Siria, Ghana... ta, esate baterako, Afrika ta Asia guztia. ¿Orren gatz egiten yaku gizo-nori alkar ulertutea? Mundu au ezin da baketu ta obatu guda ta errierta garau ba-rik. Ona emen gaurko munduaren su le-koak:

ANGOLA.—Len Portugal'en probintzia izaniko naziño onek, orain bere askatasu-na gura dau. Eztau besterik eskatuten. Bai-ña, Portugal'ek orixe bera be ez deutso gura emon. O.N.U.'ra eroan dabe auzia ta onek erantzun dau angolakoak naiko dira-la ia bere burua gordeteko, au da, ordua dabela bere libertadea lortuteko. Baiña, bai. Portugal'ek, barriz, beste era batera emon deutso erantzuna: Angola gure pro-bintzi bat da eta or eztago auzirik. Kittu! Bitartean... jo ta il, asko.

BERLIN.—Guda ostean Alemania osoa zati bitan erdibiturik, Berlin uria ugarte bat legez geratu zan komunista-zatiaren er-di-erdian. Eta ori da Berlin'en jazoten da-na. Berlingoak ez dabe izan iñoiz bakea ru-soen aldetik, baiña gaur iñoiz baiño asko-zaz txarrago dagoz, libertadearen bide guz-tiak tankez-eta itxita. Sartaldekoak ezin dabe eroan ori, ta alan jaiu da Berlin'go auzia. Zetan amaituko da? Nik uste dot amerikanoak jarrita dagozala rusoan arro-keriak ikusten eta oraingoan eztirala atzez botako.

ARGELIA.—Beti-betikoa. Baietz, ezetz. Argeliaren askatasuna dala ta ezjala, ia ez-takigu zer jazoten dan or, ezta noiz akaba-ko dan. Evian'en izan zan batzar bat ori konponduteko, baiña, antza, ez eben atara

ezer garbi. De Gaulle'k bitu gura ei dau Argelia. Beste batzar bat izango ei da ba-rriro. Zai-astia.

KUWAIT.—Lengoakaz gitxi daukogula-koan oimdiño, ona emen beste gorroto-sagar bat. Eta, total, zergaitik? Uskeri bategaitik. Kuwait naziño aberatsa da, petroleo asko dau-ta. Alan da guztiz be, eurek eskatu ebenean, inglesak libertadea emon eutseen. Baiña ia nondik nora otuten yake Irak'oeri Kuwait'gaz egitea. Inbasioa. Guda. Sartu-ten dira inglesak naziñoa zainduten. Doa auzia (bein da barriz) O.N.U.'ra ta gaur-ar-te.


LAOS.—Emengo au illunegia da. Gatz egiten da nok daukon errazoia esatea. Ber-tan naziñoan be eritziak larregi dira. Ba-koitzak bere jefia gura dau, eta jefe onek Europatik dabilzan artean, errazoia nor-berak daukola erakusten, euren gizonak —gizaseme gairxoak— antxe dagoz bata-k bestea ilten. Guda. Ginebra'ra eroan dabe kuestiñoa gauzea azalduteko, baiña, ezta ikusten ezer argi. Argiena, ori: alkar-gu-dea, oraingo onetan geldituta egonarren be.

CUBA.—Gaur egunean izen orrek asko esan gura dau. Cuba'k erakuspen asko dau-koz munduarentzat. Cuba'k barri bat eka-rrri deutso munduari, baiña, barri ta ikas-gai onek alde batera itxirik, bertako gau-zak ez doazala ain ondo esan bearrean nago. Abadeak eta monjak iges egin bear izan dabe, Estaduaren lapurkeriak larre-giak dira, erriak bere askatasuna galdu dau, gose da jendea... Fidel Castro'k barri-ro gura ei dau EE. UU.'ko ezaubideak iri-ki, areek, ostera, eskatuten deutsoe lenago apurtu daiazala rusoakaz daukozan iku-siak.

CONGO.—Emen jazorikoak ez izan ba-leusku erakutsi okerra, orduan esango geunke: "Afrika afrikanoentzat..." Baiña, Congo erakuspen baltzegia dogu.

SUDAFRIKA.—Negargarria. Endaen er-dibitasuna, zurien eta baltzen berezia. Su-dafrika'n zuriak milloi bat dira, baltzak bost milloi. Baltzak, barriz, ez dauke areen eskubiderik, "taldeetan" bizi dira (ardiak legez), autoan ibilteko txartela bear dabe... eta abar. Orain denpora bat, euren askata-suna lortu ebenean, orduentze izan zan guda itzel bat Sudafrika'n, zuriak eta bal-tzak dirala-ta. Eleizak berba egin dau. Txarto dagola berezitasun ori esan dau. Baiña, ez. Bertako lendakaria dan Dr. Ver-woerd eztago atzez egiteko. Ez: baltzak ezin dabez zurien aurrerapenak eta esku-bideak izan. Guzurra.

BAKEA bear dogu. BAKEA gura dogu. BAKEA eskatuten deusagu gure Jaungoi-koari, mundu onetan bakezko gizonak guz-tiz gitxi dira-ta.



Gertakerak

AGO BETE AGINEGAZ. Balzac nobelista, ganera grafologua zan; eta, berak uste ebanez, onenatarikoa. Ez eiakon pasako berari ezer usaña artu barik kartaren bat asertzen asten bazan.

An joan iakon baten andra bat karta bat eskuan ebala. Karteak umeren batena emoten eban, baña, bere edaderako, oso aurreratu eta argia: letra ederra eta garbia ikusten zan. —Ara jauna —esan eutsen andreak— esaidazu mesedez zer izango dan mutiko au. Balzackek ondo begiratu ondoren: “Beren ama zara? —“Ez jauna”— “Beren senidea? —“Ez jauna”—. “Ba... konfiantza guztiagaz egia esango deusut: Mutiko au bere bizitza guztian astakillo, kirten, lelo bat besterik ez da izango”. Orduan andreak: “Baña... Balzac jauna, egia ete da zeure gartzaroko letrea ez dozula esagutzen?”

AITA ZELAKOA, SEMEA ALAKOA. Rivarol jakitunak esaten eban Buffonen semeatzaz:

—“Nor dan? Bere aitaren “Istoria Naturaleko” kapitulorik zantarrena.

ONDO ERANTZUNDA. Karlos V Españara eldu zanerakoxe gizontxo bi urratu iakozan gauza aundi eta barri bat esateko asmoz. Errege barriaren lagun egin nai eban. Esan eutsen ba erregeari nun egozan bere areriorik amorrutuenak ondo gordeta. Karlosek goitik bera begiatuz erantzun eutsen:

—“Gizonak, ori dok itxurea..., esan ba zeuntzen eureri ni nun nagoan, baña niri esatea arraitio eurak nun dagoazan...”

GAUZA BAKOTXA BERE TOKIAN. Dakizuenez, Valle Inclán, idatzlari edo eskritore bat zan. Mantxua ganera. Era barre-garrian galdu eban bere besoa. Alako taberna zistrin batera joaten zan beti. Bein, ondo edan ondoren, erdi ikitano bategaz asarratu zan, eta onek besteko barik ipialako makillakadea emon eutsen bere beso gixajoa dingilizka itxirik.

Baña eskritore arroak edonundik eteraten eban konsolaziñoa eta egun baten an ebillen botaalako arrokeriak hotaten. Bere

ustez, eskritore bi izan eidira bakarrik España guztian erdera ondo jakin debanak: Zerbantes eta bara. Eta..., au gauza mira garria, biak mantxoak.

Ainbat bider esan eban gauza bat, Bena-vente berotu zan eta esan eutsen:

—“Valle Inclán, zurea etzan izan geru Lepanton...”

Betiko ixildu zan eskritore arroa.

ZOROA EDO... Korinton bizi zan Diogenes filosofoa bere askengo egunetan. Bere burua ezebillen ondo ordurako: gitxi jan, errekastokoetako ura eskoakaz edan eta barrika baten bizi zan. Orregaitik zan aintz aundia bere entzutea. Alejandro Nagusia be ikustea pentsatu eban. Korinto artu eban nean joan zan ba Diogenesgana eta asi zaran berbetan:

—Ni Alejandro Nagusia naz.

—Ni Diogenes gixajoa.

—Ez daukazu bildurrik?

—Txarra edo ona zara ba?

—Ni ona.

—Zelan izango dot ba bildurra gizon on bateren aurrean?

—Antza pobre bizi zara. Zer gura dozau? Eskatu gura dozuna eta emongo deusut.

—Kendu zaitez bada eguzkitit, eguzkia gura dot eta.

CHURCHILL ETA JOHN. Oraindiño In-glaterrako ministroa zalarik, Churchillek lagun barri bat aurkitu eban. Lagun itxurra bakoa eta erdi buru bakoa: Augustus John. Bere lagunak ez egozan konforme eta bein baño gelagotan esan eutsen alde-teko pizti arengandik, ez etorkiola ondo lagun aren famia ta. Churchillek erantzun eutsen:

—Badakizue zuek nor zan Rafaelen denporan Erromako ministroa?

—Nor jakin?

—Ostera danok dakigu Rafael nor zan.

NAI TA NAI EZ AGIA. Ez dago zergaitik esan nor zan Nietzsche. Esaten eutsan bere lagun bateri bein:

—“Dana dala neure bizitzako gauzarik ederrenak kristiñautasunari deusadaz zok...”